

laz baino  
«harrera  
eskasagoa»

Udalak Kultur Astearen  
balantzea egin du ▶ 5



Harpidedunei banatua ▶ Asteazkena ▶ 2005-10-05 ▶ III. urtea ▶ 702. zenbakia ▶ [www.tolosaldeko-hitza.info](http://www.tolosaldeko-hitza.info)

JOKIN ZUGASTI ▶ UZTURPE-KO ZUZENDARIA

## «Kalitatearekin eta berrikuntza pedagogikoekin jarraituko dut»

**IBARRA** ▶ Nekane Tolosaren  
lekukoa hartu du irakasle  
tolosarrak, «gogotsu eta ilusioz» ▶ 6



Jokin Zugasti, Uzturpen; bost urtez izango da zuzendari. I. TERRADILLOS



## Hegoalde berriak hasi du denboraldia

**TOLOSA** ▶ Aldaketa dezente izan dira taldean 2005-06 Ligarako;  
asteburuan 5-4 irabazi dute Diamante Riojaren aurka, Usabalen ▶ 3

**TOLOSA** ▶

### Kultur ekitaldiz beterik iritsi da urria

Musika, hitzaldiak,  
erakusketak... ▶ 2

**ARESO** ▶

### Udalak ituna sinatuko du Larraun Kirol Mankomunitatearekin

Kirol jarduerak «herrian bertan» egin  
ahal izatea du helburu hitzarmenak ▶ 7

## GOIERRIKO HITZAren 1. URTEURREN FESTA

URRIAREN 8AN BEASAINGO PLAZAN



16:30ean  
TXILIBUTXOFen  
Tailerra

19:00etan  
AURTZAKA DANTZA TALDEA  
eta  
ZUHAITZAREN SOINUA  
Txalaparta

BERTSOLARIAK

22:00etan  
FREEZEN  
eta  
HARTU ARTE

10:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik aurrera HITZAko MATERIAL SALMENTA

## KULTURA ▶

# Makina bat ekitaldi antolatu dituzte hil honetarako

Musikak, Abesbatza Lehiaketak, IpuinARTEan erakusketak eta mahai-inguruek osatzen dute, besteak beste, agenda

## NOELIA LATABURU

Bero-bero dator urriko agenda Tolosan, Bonberenean, Kultur Etxean eta bestelako guneetan garatuko diren musika ekitaldi, erakusketa, feria eta lehiaketen harira.

## ERAKUSKETAK

**Azaroaren 15a bitarte.** IpuinARTEan erakusketa ibiltaria. Tolosa 750 Fundazioak eta Irazki elkartearen antolatuta. Aranburu jauregian. Erakusketen bisita orduak, 17:30etik 20:30era izango dira, jaiegun eta asteleheneretan izan ezik.

**Urriak 17tik 23ra.** Amigos de Cuba y p'Alante elkartearen antolatutako erakusketa, Kultur Etxean.

## FERIAK

**Urriak 15, larunbata.** Probin-tziako XXXVI. Abelgorri Lehiaketa eta arraza desberdineko abelgorrien erakusketa eta enkantea, Ferialekuan, goiz guztian. Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Tolosako Udalak antolatuta.

## MAHAI-INGURUAK

**Etzi, ostirala.** Mahai-ingurua, *Bizikidetzarako giltzarriak*, 19:30ean, Irazki elkartearen antolatuta, Kultur Etxean.

**Urriak 14, ostirala.** Mahai-ingurua, *Kulturartekotasunari buruzko gogoetak*, 22:00etan,



Musika ekitaldi ugari jasoko ditu urrian Bonberenean. A. E.

Irazki elkartearen antolatuta, Kultur Etxean.

## JARDUNALDIAK

**Urriak 27tik 29ra.** Gineari buruzko jardunaldiak, Kultur Etxean.

## LEHIAKETAK

**Urriak 28tik azaroak 1era.** Tolosako Abesbatzen Lehiaketa.

## MUSIKA

**Etzi, ostirala.** Sei Urte eta Kerobia musika taldeen zuzeneko emanaldia, 22:30ean, Bonberenean.

**Urriak 8, larunbata.** Zura eta Amodio taldeen kontzertuak, 22:30ean, Bonberenean.

**Urriak 14, ostirala.** Def con Dos taldearen kontzertua, Bonberenean, 22:30ean.

**Urriak 15, larunbata.** Arratsal-

dean, Tolosako Musika Bandaren Pilarikako kontzertua, 19:30ean, Plaza Berrian. Gauean, Potemkin eta Lor musika taldeen kontzertua, 22:30ean, Bonberenean.

**Urriak 21, ostirala.** Kontzertua Bonberenean, 22:30ean, Señor No eta Electric Riders taldeenkin.

**Urriak 28, ostirala.** Kontzertua Bonberenean, 22:30ean, Anje Duhalde abeslariarekin.

## BESTERIK

**Urriko lehen astean.** Kultur Etxeko ikastaroen hasiera.

**Urriak 21, ostirala.** Ipuin kontalariak, 22:00etan, Iratxo tabernan. Idoia Sanchez eta May Gorostiagaren eskutik.

**Urriak 22, larunbata.** Ekitaldi desberdinak Bonberenean, (graffiti erakustaldia, skate txapelketa DJ-ekin, kontzertua...)

## MUSIKA ▶

## Lehenengo kontzertuak zezen-plazan, 15ean

Ken7 eta Muchachito Bombo Infierno taldeak ariko dira, 22:00etatik aurrera



Arrakasta handia lortu du Ken7 taldeak bere akustikoarekin. HITZA

## N. LATABURU

Tolosa 750. Urteurrena Fundazioak antolatuta, zezen plazak bere lehenengo kontzertuak hartuko ditu, hil honen 15ean. Ken 7 eta Muchachito Bombo Infierno taldeak izan dira talde aukeratuak, eta emanaldia 22:00etatik aurrera eskainiko dute.

Sarrerak dagoeneko salgai daude; aldez aurretik 12 euroren truke izango dira eskuragarri Servikutxan. Telekutxan eta [www.kutxa.net](http://www.kutxa.net)-en. Bertan erosiz gero, 15 euro ordaindu beharko dira. Halaber, asteburu honetan Gazte Topagunean ere salgai izango dira, eta egun bakoitzean bi sarrera zozketatuko dituzte bertaritzen direnen artean. Edozein zalantza izanez gero, Tolosako

Kultur Etxera dei daiteke, 943 67 03 83 telefono zenbakira.

Bost urte kontzertuetan ibili ostean eta bi diskoren ondoren, zezen plazan eskainiko duten akustikoa aurkeztu zuen Ken 7 taldeak, «arnasa hartzeaz gain, erronka berri bat bezala planteatu dugu, eta oso motibatuta gaude proiektu honekin». Jendaurreko grabaketa apirilean izan zen, Garate baserrian. Diskoa, berriz, maiatzaren bukaeran kalera-rra Servikutxan. Telekutxan eta [www.kutxa.net](http://www.kutxa.net)-en. Bertan erosiz gero, 15 euro ordaindu beharko dira. Halaber, asteburu honetan Gazte Topagunean ere salgai izango dira, eta egun bakoitzean bi sarrera zozketatuko dituzte bertaritzen direnen artean. Edozein zalantza izanez gero, Tolosako

Muchachito Bombo Infierno, berriz, emanaldi «ikusgarria» da, non Muchachitok bonboa jotzen duen, kitarra, bateria, tronboia jo eta abes-ten duen bitartean.

## iragarki laburrak ▶

**BASABI Inmobiliaria**

Pablo Gorosabel, 40  
1. planta - 7. begirua  
20480 TOLOSA  
Telf. eta Faxa: 943 65 55 87  
mag.: 669 368 994

**Aduna.** 608m<sup>2</sup>ko pabilioia alokairuan, garabi zubiarekin, bulegoak bertan.

**Albiztur.** Berritzeko dagoen baserria salgai, banandua, hiru solairuko, solairu bakoitzak 200 m<sup>2</sup>-koa. 35.000 m<sup>2</sup> dituen lursail propioarekin.

**Anoeta.** Estreinatzeko dagoen duplex ebebizitza salgai. 4 logela, 2 bainugela, egongela, sukaldia eta terraza. Garajea du aukeran.

**Asteasu.** 1.050 m<sup>2</sup>-ko bi solairuko eta 250 m<sup>2</sup>-ko solairu artea duen pabilioia salgai edo alokeran. Mota guztietako tresnaz eta hobekuntzekin hornitua.

**Beasain.** 45 m<sup>2</sup> erabilgarriko

ebebizitza eta lokal komertziala salgai.

**Berrobi.** 50 m<sup>2</sup>-ko ebebizitza, salgai, planta baxuan. Berritua.

**Berastegi.** 100 m<sup>2</sup>-ko bi solairuko borda salgai, moldatu beharrean dagoena, 75.000 m<sup>2</sup> dituen lur-saila, 35 eta 50 urte dituzten laritz pinuarekin.

**Bidania.** Azken bi etxe abikiak salgai, 160 m<sup>2</sup> dagoeneko eraikiak daude.

**Donostia.** Saguesen, 70 m<sup>2</sup>-ko duplexa salgai, berritua, igogailuarekin eta Groseko hondartzara ikuspegiarekin.

**Legorreta.** 3 hektarea dituen lursaila salgai, sarbide egokiarekin.

**Lizartza.** Eraikuntza berriokoa diren eta 350 m<sup>2</sup>-tik hasita, 14.000 m<sup>2</sup> pabilioi salgai.

**Segura.** Eraikuntza prozesuan dauden 14 etxe abiki salgai, 297.500 eurotik aurrera.

**Tolosa.** Santa Klara kalean, 90 m<sup>2</sup> dituen ebebizitza berritua salgai. Atzealdean baratza eta txabola propioarekin.

**Tolosa.** Gudari kalean, Samaniego kalearekin iskinean, 110 m<sup>2</sup>-ko ebebizitza salgai. Kanpoaldera eta, eguzkitsua. Igogailuarekin. Berritzeko premia.

**Tolosa.** Pablo Gorosabel, 65 m<sup>2</sup> erabilgarri dituen eraikuntza berriko azken apartamendua.

**Tolosa.** Belate pasealekua, 4. solairuko ebebizitza salgai, 70 m<sup>2</sup>-koa. Kanpoaldera, igogailua eta trastelekuarekin, biak barne.

**Tolosa.** Apataerrekian, lehenengo solairuan ebebizitza eta bigarren solairuan duplex-a. Biak berritua daude. Garajea eta lur-saila propioak ditu.

**Tolosa.** Zumalakarregi kalean, hirugarren solairuan berriturik dauden bi ebebizitza daude salgai.

**Tolosa.** Ebebizitza gehiago ditugu aukeran alokairuan. Informazio pertsonalizatua lortzeko, gure bulegoetan.

GIZARTEA ▶

**Udalak autoa partekatzeke fotoa jarri du**

Tolosako Udalak autoa partekatzeke foroa jarri du abian bere webgunean: [www.tolosakoudala.net](http://www.tolosakoudala.net). Foro horrek tresna izan nahi du ibilgailu partikularra beste herritar batzuekin partekatzeke eta beren eskaintza plazara ateratzeko. «Besteen autoa konpartitu eta gastuak erdibana eginez garraio modu hori erabiltzeko zerbitzua eskaini nahi dugu».

HEZKUNTZA ▶

**Kurtso hasierako gurasoen bilerak Hirukiden**

Hirukide ikastetxean ikasturte hasierako gurasoen bilerak ari dira egiten egunotan, eta gaurkoan bi izango dira: 17:30ean, LH-ko 1. mailako ikasleen gurasoek dute hitzordua Jesuitinetan, eta 18:30ean LH-ko 2. mailako ikasleenean, leku berean.

TELEFONOAK ▶

**Larrialdiak. ((112))**

**Osasuna.**

- ▶ **Alegialdea.** Osasun z.: 653212
- ▶ **Anoeta-Alkiza-Hernialde.** Medikua: 65 23 39
- ▶ **Asteasu.** Medikua: 692423
- ▶ **Baliarrain.** Medikua: 889003
- ▶ **Berastegi-Elduain.** Medikua: 683361
- ▶ **Bidegoian.** Medikua: 681134
- ▶ **Ibarralde.** Osasun etxea: 672411

- ▶ **Ikaztegieta.** Medikua: 653329
- ▶ **Iruera.** Osasun zentroa: 690720
- ▶ **Leitza.** Osasun z.: 948 510800
- ▶ **Orendain.** Medikua: 655595
- ▶ **Orexa.** Medikua: 682228
- ▶ **Tolosa.**

- ▶ Anbulatorioa, larrialdia: 461111
- ▶ San Esteban: 006800
- ▶ Gernikako arbola: 006900
- ▶ Amaroako dispen.: 672637
- ▶ Asunzion Klinika 675799 - 67 53 90 (larrialdiak)
- ▶ DYA: 672536
- ▶ Gurutze Gorria: 674888
- ▶ Villabona. Anbulat.: 006970
- ▶ Zizurkil. Aiztondo zerb: 693930

**Garraioak.**

- ▶ Renfe: 902 24 02 02
- ▶ Donostiako autobusa: 361740
- ▶ Tolosaldea bus: 650621
- ▶ Leitzarain autob.: 948 221015
- ▶ Taxia: 670420
- ▶ Taxia (Leitza): 608 873016

**Besterik.**

- ▶ Ertzaintza: 538820
- ▶ Tolosa-Udaltzaingoa: 675858
- ▶ Tolargi: 650016
- ▶ Iurrarmendi egoitza: 670325
- ▶ Tolosa gasa: 675320

ARETO FUTBOLA ▶

**Estu eta larri, baina lehen garaipena Hegoalderentzat**

Denboraldiko bigarren jardunaldia jokatu dute Larrearen eta Salvadorren neskek Usabalen; 5-4 irabazi diote Diamante Rioja taldeari; 9. dira sailkapen nagusian

**HEGOALDE ▶ 5**

**DIAMANTE ROJA ▶ 4**

**Hegoalde KE.** Idoia Manrique, Isa Barrio, Maider Lopez, Ane Larrañaga eta Emi Ugarte; Vicky Delgado, Miriam Arana, Edurne Agirretxe, Amaia Azpilikueta, Naiara Mayo, Sarah Ugarte eta Ana Berziano. Entrenatzaileak: Mikel Larrea eta Ruben Salvador.

**Diamante Roja.** Esther de Corta, Teresa Marin, Alicia Martinez, Mercedes Lopez eta Adriana da Costa; Lorena Gomez, Maria del Pilar Rodriguez, Beatriz Ascacibar eta Izaskun Sanz.

**Golak.** 0-1: Vicky Delgado (8 m.); 1-1: Adriana da Costak (9 m.); 2-1: Amaia Azpilikueta (14 m.); 3-1: Amaia Azpilikueta (15 m.); 3-2: Beatriz Ascacibarrek (18 m.); 3-3: Mercedes Lopezek (19 m.); 4-3: Maider Lopezek (19 m.); 5-3: Miriam Aranak (35 m.) eta 5-4: Adriana da Costak (38 m.).  
**Epailak.** Aitor Felipe, Igor Gereta eta Imanol Dominguez gasteizarrak.

**SAILKAPENA ▶**

**Emakumezkoen Espainiako Ohorezko Maila.**

Taldea	I	B	G	P
1. F. Navalcarnero	2	0	0	6
2. T. Mostoles	2	0	0	6
3. Femesala Elche	1	1	0	4
4. M. Zaragoza	1	1	0	4
5. Kettal Fuenla	1	1	0	4
6. P. Telde Canaria	1	1	0	4
7. F. Cadi Gironella	1	1	0	4
8. UCAM Murcia	1	1	0	4
<b>9. Hegoalde KE</b>	<b>1</b>	<b>1</b>	<b>0</b>	<b>4</b>
10. C. Cordoba	0	1	1	1
11. Rioja Diamante	0	0	2	0
12. ADAE Valladolid	0	1	1	0
13. Valencia FFS	0	0	2	0
14. Ourense SAD	0	0	2	0
15. Majadahonda	0	0	2	0

**iragarki laburrak ▶**

**LANA**

**Saltzailea.** Emakume saltzaile bat behar da Tolosako denda baterako. Astelehenerik larunbatera



Fitxaketa berri asko ditu Hegoalde areto futbol taldeak denboraldi berrirako. HEGOALDE KE

**IRATXE ETXEBESTE**

Estu eta larri, baina denboraldiko lehen garaipena izan zen larunbatekoa Hegoalde KE-ko neskek. Usabalen jardun zuten Mikel Larrearen eta Ruben Salvadorren aginduetara jokalaritza tolosarrekin, eta Rioja Diamante taldearen kontrako norgehiagoka («parekatua») jokatu zuten. 5-4ko emaitzarekin irabazi, eta bederatzigarren jarri dira sailkapen orokorrean, lehen postuan den Futsi Navalcarnero berrira.

Partiduaren ostean, halaxe zioten Hegoaldeko entrenatzaileak: «Lehen zatian gehiago izan da gure taldea jokoan, baina nagusitasun hori ez dugu markagailuan erakutsi. Hori bai, errioxarrekin baina teknika eta antolaketa hobea azaldu dugu lehen zati horretan». Lehen hogei minutuetan atera zituzten jokalarietatik erdiak fitxaketa berriak zituen Hegoalde, baina, hala eta guztiz ere, txukun aritu ziren. «Oraindik elkarri egiteke daudela egia da, baina erakutsitakoagatik beste bizzahiru jardunalditan neurria hartuko dutela aurreikusten dugu», adierazi dute Larreak eta Salvadorrek.

Errioxarrekin, bestalde, jokalaritza zuten ardatz: Adriana da Costa brasildarra, eta hark egindako jokaldi bakan batzuek esker («partiduan erabat sartuta iritsi dira atsedendaldira»). Markagailuan 3-1eko jarraitzeaz batera, bazirudien Hegoalde garapenari lasai eutsiko ziola, baina ez zen hala gertatu.

**Bigarrenen, presio handia**

Bigarren zatian errioxarrekin «dena emanda» atera ziren kantzara, tolosarrekin kantzara oso presioa eraginez. Eta hor ez zuten asmatu etxekoek. Ez zuten baloia lasaitasunez jokatzen jakin, baloia azkarregi galdetzen zuten, eta beren atea babesten jardun zuten ia zati osoan. Hala ere, atzean bilduta egonik ondo eutsi zioten aurkariaren erantsiari, eta horretan bikain aritu zen Idoia Manrique garapenari. Hurrenean izan zen Hegoaldeko jokalaritza onena.

Azpilikueta berrira batera. Kontraerasoan jokatzeko aukera gutxitan izan zuten, baina haiek batean Miriam Aranak gol bikaina lortu zuen neurketa amaitzeko bost minutu falta zirela. Bi goleko errenta berriz ere, baina lasaitzeko astirik ez. Da Costa brasildarra izan zuten hainbat aukeretatik bat asmatu zuen partidua amaitzeko bi minutu falta zirela.

Eta, hala, azken minutuak gorrak izan ziren Hegoalderentzat. Bi baloi zutoinera, atezainaren hiru zapaldu gelditu baina, euren jokogunetik atera ezin... Baina eutsi egin zioten markagailuari, eta, horrenbestez, denboraldiko lehen garaipena eskuratu zuten. «Usabal kirol eta aisialdi guneko kantzara estreinatzeke erarik aiposena izan da, ezbaierik gabe», zioten Hegoaldeko arduradunek. Bertan bildu ziren zaletu gehienek —laudenak talde errioxarrearenak— gozatu egin zuten.

**TOLOSALDEKO HITZA.INFO**

**Zorion agurrak.** Zure bikotekidea, laguna, senitartekoa edo dena delakoa zoriandu nahi duzula? HITZA egunkarian egunero argitaratzen diren agur mezuk Internet-en ikus ditzakezu, bere webgunera sartuz gero. Ikus itzazu zorion agurrak!

**Tolosako Udala**

**IRAGARKIA**

Gobernu Batzordeak 2005eko irailaren 26an egindako bilan, EAZ 2 "Ezker-aldia" eremua birgatazko Plan Berzianaren "Ingurumen-eraketa" ebaluatzeko azterketa, jendaurrean jarzea erabaki zuen. Espedientea jendaurrean jarriko da hamabost eguneko epean, alegazioak aurkeztu ahal izateko. Iragarki hau Gipuzkoako Aldizkan Ofizialean, Diario Vasco, Berria eta HITZA egunkarian argitaratuko da, eta epea azken argitarapen dataraino biharamunetik zenbatuko da. Epe horretan, espedientea jendaurrean argian egongo da. Udaltaldeko Hingintza Bulegoetan (Plaza Zaharra, 6-B). Alegazioak egoitza bereko Sarrera Erregistroan aurkeztu behar dira, Udaleko Akte-Liburuaren bidez, eta zuzendurik. Tolosa, 2005eko irailaren 27an, ALKATEA - Jokin Beldarratz Sorron

## GUTUN@K ▶

## Frankismoko azken fusilatuetatik 30 urtera

Joan den irailaren 27an, urtero legez, Gudari Eguna ospatu genuen Txiki eta Otaegiren fusilaketa gogoratuz. 30 urte dira jada bi gudari hauek eta FRAP-eko beste hiru kide heriotz zigorrera eraman zituztela, eta ezin uka dezakegu fusilaketa hau gure herriaren historiaren ispilu denik.

Franco hil baina askoz lehenago agerikoa zen erregimenaren krisi sakona, langile mugimenduaren erradikalizazioa, lanuzte etengabeak edo gazte-riaren hainbat sektorek bultzatutako borroka ezin izan zituen errepresio militarrek isilarazi. Burgesiako sektore garrantzitsu batzuk berrogei urtez diktaduraren itzalpean aberasten egon eta gero banatzen eta de-

sorientatzen hasi ziren, elizan eta ejertzitoan (UMD) ere zati-keta txikiak ageri ziren. Zer dela eta? Frankok testamenuan argi eta garbi utzi zuen, 'dena lotuta eta ongi lotua uzten dut'. Zer dela-eta hainbeste urduritasuna? Erantzuna argi dago: langile mugimenduaren borroka zalantzan jarri zuen ez diktadura bakarrik, baita sistema kapitalista bera ere. Burgesiako, dena galtzeko beldurrez trantsizio demokratikoari ekin zion.

Gerra ostean langile mugimendua erabat zapalduta geratu arren, 1966etik aurrera lanuzteak gorakada etengabean sartu ziren. 1964-66an 171.000 lanegun galdu ziren gatazka eta enfrontamenduetan, 1976-78an, berriz, 13.240.000. 1974, 1975 eta 1976 urteetan, krisi ekonomiko internazionala bete-betean, soldata murrizketak eta bizi-baldintzen pobretzea ziren nagusi mundu guztian, Espainiako estatuan, ordea, al-

derantziz: patronala iraultza ez-tanda baten beldurrez soldadak handitu beharrean zen. Langile klasea indartsu sentitzen zen borroka ekonomikoak aurrera eramateko garaian, konbenioak hiru hilabeteko sinatuarazten zirelarik. Baina borroka ez zen lantegietan gelditu, segituan eraldatu zen erreindikazio politiko sozialistetan. 70. hamarkadan jada benetako iraultza sozialista baterako faktore objektiboak gori-gorian zeuden langile eta gazte mobilizazioak kontuan harturik, zer falta zen?

Benetako programa sozialistagatik apustu egingo zuen eta bere baitan langileria mobilizatzeko gaitasuna zuen partidu politiko bat falta zen. PCE eta PSOE bezalako alderdiek behin eta berriz burgesiarekin kolaborazioak eginez *demokrazia* burges baten tranpara bultzatu zuten borroka. Askatasun demokratiko gutxi bazu-zen alde lantegien, bankuen

eta gobernuaren jabetza burgesiari utzi zizkion. Albo batera utzi zituen konsigna demokratikoak, adibidez, nazionalitate- en autodeterminazio eskubi- deak, ejertzito eta organu erre- presiboen deuseztea edo mo- narkiaren abolizioa.

Francoren heriotza bazeto- rren, erregimena gero eta ahu- lago zegoen eta Carrero Blanco gobernu burua hil zutenaz Arias Navarro 'Malagako hara- kinak' hartu zuen bere lekua, errepresio garai gogor bat ha- siz. 1975eko apirilaren 25ean salbuespen egoeran jartzen dira Gipuzkoa eta Bizkaia, atxi- loketak, espetxeratze eta tortu- rak edonola eginaz. Baina inongo errepresioek ez du esta- tua egonkortzen, alderantziz, mobilizazioak indartzen ditu.

Azkenik, diktaturak eskar- mentu eder bat ematea eraba- kitzen du mugimendu antifr- ankista guztiarentzat eredu- garri izan dadin. ETari bi delitu ego- tzi zizkien eta FRAPi beste bi.

Errudunak aurkitzerako or- duan ahal ziren atxiloketa gehienak burutu ziren tortura- pean aitortzak ateratzeko. Hori jasan zutenen deklarazioak polizi aurrekoak soilik ziren, senideek ezin izan zituzten ezagutu. Atxiloketak burutu eta prozesu judizialak lotsaga- rriak izan ziren.

Hatz marka eta autopsia be- zalako frogak ezerezatzen di- ra, inongo testigik ez zuen Tx- iki ezagutu. Otaegi ETAKo mili- tantei ostatu emateagatik zigortzen da, bere aurkako fro- ga Garmendiaren aitortzako hatz marka bat zelarik. Krimen honen kontrako mobilizazioa bat-batekoa izan zen Europa mailan, baina hala ere irailaren 27ean fusilatua izan ziren *Eusko gudariak* abesten zute- la. Egungo errealtateari begira amaitu gabeko borroka bezala bakarrik deskriba genezake gure historia.

IKER OTERMIN  
ETA IBON ARTOLA ▶ ANOETA

## ANOETA ▶ KULTURA

## Sarbidia errazteko

Anoetako Udal Liburutegia Euskadiko Liburutegien Sistema Nazionalean dago

## IRATXE ETXEBESTE

Eusko Jaurlaritzako Kultura sailak Euskadiko Liburutegien Sistema Nazionaleko katalo-

goa sarean jarri du honezkero. Proiektuaren azken xedea her- ritarren sarbidia erraztea da Euskal Autonomia Erkidegoko liburutegi publikoetako fondo

bibliografikoetara. On-line katalo- go kolektibo hori etengabe eguneratzen da, eta webgunea kontsultatuz gero, bilaketa ba- karrean erabiltzaileak jakin ahal izango du interesatzen zaizkion gaiet buruz zenbat do- kumentu dauden, eta baita zein liburutegitan eskura ditzakeen ere.

Bada Anoetako Udal Liburu- tegia ELSN, Euskadiko Liburu- tegien Sistema Nazionalaren baitan dago jadanik, eta zerbitzu hori herritarren eskura jarri du. Horretarako, udal liburu- tegian eskaera bete beharko dute anoetarrek —doan da—, eta erabiltzaile txartela jasoko dute. Horrekin batera, pasahitza emango diote erabiltzaile

bakoitzari, Interneten katalogo kontsultatu ahal izateko.

Zerbitzu horren bidez, era- biltzaileek 3 liburu hartu ahal izango dituzte gehienera ere Anoetako liburutegian, eta sa- reko gainerako udal liburutegietako bakoitzean denera sei dokumentu hartu ahal izango dituzte: 3 liburu eta 3 bideo, disko, CD-Rom... Guztira, sareko liburutegietatik aldi berean gehienez 16 dokumentu hartu ahal izango ditu erabiltzaileak maileguan, hortaz: 8 liburu eta 8 disko, bideo, CD-Rom...

Mailegu bakoitzeko iraupen data bat zehaztuta dago, bes- talde. Esate baterako, liburuak ezingo dira maileguan hartu 15 egun baino gehiagoz, eta mate-



Anoetako liburutegia. I. GARCIA

rial berezietarako 7 eguneko epea dago. Liburuaren mailegua behin soilik berritu daiteke, beste 15 egunetarako eta ma- terial bereziak ere behin, beste 7 egunetarako. Material horiek erreserbatuta egonez gero, or- dea, ezingo da mailegua berri- tu. Arduradunek jakinarazi dute dokumentuak itzultzeko epeak betetzen ez dituen era- biltzaileak «atzeratutako egun eta dokumentu bakoitzeko egun bateko zigorra» jasoko duela, eta zigorra ELSN sare osorako izango dela.

INGELESA

JAKON

FIRST: 10:30 - 16:00  
eta 19:30

HAURRAK: 17:30 - 18:30  
(9-10 urte)

HAUEK DIRA  
— AZKEN PLAZAK —

Tel. 943-652372  
(10:00-12:00 eta 16:30-20:30)  
GOROSABEL 2.1º  
(TRIANGULOAN)  
TOLOSA



**ALEGIA ▶**

**'Negocios ocultos' filma gaur Gaztetxean**

Dagoeneko hasi dira Alegia-ko Gaztetxeko zinezaleak pelikula ikustera biltzeko ohitura onarekin. Denboraldi honetako bigarren filma proiektatuko dute gaur gauean, asteazkena, betiko moduan, 21:30ean. Aste honetan *Negocios ocultos* aukeratu dute antolatzaileek ikusleentzat, Stephen Frears Erresuma Batuko zuzendariaren filmetako bat.

**AMEZKETA ▶**

**Gripearen kontra txertatze kanpaina hasi da**

Irailaren 19an hasi zen gripearen aurkako txertoaren kanpaina Amezketan eta azaroaren 4a bitarte iraungo du. 65 urtetik gorakoentzat eta gaixotasun kronikoa dutenentzat dohainik da. Amezketako Osasun Zentrura jo behar da, astelehenetik ostiralera, 11:30etik aurrera. Ohartarazi dutenez, gaur, urriaren 5a, ez da txertakerik egingo.

**UGARTE ▶**

**Adineko pertsonentzat gimnastika**

Gaur hasiko dira martxan Ugarten gimnastika saioak adineko pertsonentzat. Ugarten asteazkenetan izango dira klaseak, Osasun Zentruko egongelan, 16:00etatik 17:00etara. Honez gain, Amezketako erdiguneko baliolaniztun gelan ere saioak izango dira, 17:00etan hasi eta 18:30ak bitarte. Eztitxu Unsain fisioterapeutak emango ditu klaseak.

**BIDEGOIAN ▶ KULTURA**

# XVI. Kultur Asteak iaz baino harrera «eskasagoa» izan du

Bi asteburuetan izan da partaidetza handiena, eta Udalak hitzaldiek izan duten «erantzun kaskarra» nabarmendu du

MARTA SAN SEBASTIAN

Pasa den astean egin zuten Bidegoianen XVI. Kultur Astea. Egitarau oparoa prestatu arren, Udalaren hitzetan «arrakasta txikia» izan dute zenbait ekitaldik. Hala nola, astean zehar burutu diren bi hitzaldiak ikus-entzule gutxi joan dela nabarmendu du. Asteburuan izandako azokak eta umeentzako ekitaldiek, ordea, «harre-ra hobe» izan dute.

Kultur Astea pasa ondoren balantzea egiteko garaia iritsi zaie antolatzaileei. Aurten prestatu dituzten ekitaldi guztiek harrera berbera ez dutela izan azpimarratu dute. Lehenengo asteburuan, igande goizean, azoka egin zuten plazan eta «jende dezente» inguratu zen bertan jarri zituzten hamar postuetara. Besteak beste, larrruzko pilotak, Errezilgo produktuak eta krema naturalak erostera animatu ziren asko izan ziren.

Asteburuari jarraipena Izar Arregi psikologoak eman zion, *Gurasoen zalantzak gazteen ezaugarrien inguruan* hitzaldiarekin. Eta ostegunean bigarren saioa egin zuen, *Menopausia modu egoki batean bizitzen hasi* gaiaren inguruan. Juan Ugarte Bidegoiangoa alkaterearen hitzetan, «oso jende gutxi izan dugu bi hitzaldietan, aurreko urteotan baina gutxia-



Marrazki lehiaketan haurrek primeran pasatu zuten. I.GARCIA

go». Josu Iztueta bidaiari eta abenturazale tolosarrak ostira-lean eskainitako diapositiba bildumaren proiektoria, aldiz, ikus-entzule gazte dezente joan zen. Hitzaldi interesgarriak antolatu nahi izan dituzte, baina datorren urteari begira «baliteke» aldaketak izatea zentzu honetan.

XVI. Kultur Asteari pasa den larunbatean eman zioten amaiera umeei zuzendutako hainbat ekitaldiekin, besteak beste, marrazki lehiaketa, antzerkia eta txokolatada. Egun honetan ere iaz baino haur gutxiago bildu arren, primeran pasatu zutela azaldu dute agintariek.

**ipuin harrigarriak**

Herri literaturaz gozatzeko kondairak, ipuinak, istorio bitxiak

1. **Ipuin harrigarriak 1**  
Kastillopranko  
Biribil-biribilak  
Ipuin harrigarriak 2  
Dar-dar  
Ondo eginaren ordaina  
Ipuin harrigarriak 3  
Gatza ala erregea  
Biziak ezagutzeko hila  
Ipuin harrigarriak 4  
Zapatari asmatzailea  
Zerraldoan bizirik  
Ipuin harrigarriak 5  
Ikazkina eta heriotza  
Besterik ez bezalako kapela  
Ipuin harrigarriak 6  
Estudiante Tonto  
Ezkonberriak  
Ipuin harrigarriak 7  
Kanillo arrantzalea eta Kanillotxiki  
Zeruko berriak  
Ipuin harrigarriak 8  
Pepetxu eta Popatxu  
Kardulatza salatari

**Urriaren 8tik aurrera ASTEBURUETAN**

**berria**  
Berria urteko lehenengo aldiz...  
**+ 3 €**

Legutzaileak:  
Euzko Lehen Unibertsitatea  
Bizkaia

## IBARRA ▶

**Aiton-amonon  
eskolan  
izen-ematea**

Uzturpek antolatuta, astelehenean, urriaren 10ean, hasiko da aiton-amonon eskola. Izena emateko Uzturpe ikastolara deitu beharko da, 943 67 12 99 zenbakira.

## LEABURU ▶

**Mantentze  
gimnastika  
hasiko da gaur**

Gaur emango diote hasiera gazte gelan mantentze gimnastika ikastaroari. Astelehenean eta asteazkenean izango da, 21:00etatik 22:00etara. Animatzen denak oraindik ere badu izena emateko aukera.

## IBARRA ▶

**Etzi amaituko da  
lantegietan izena  
emateko epea**

Etzi amaituko da kultur lantegietan izena emateko epea, eta oraindik ere hainbatetan lekua geratzen da. Kultur Etxean egingo da izen-ematea. Tailer hauek eskaintzen dituzte: areto dantzak (osteguna, 18:00-20:00), argazkia-hastapena (asteartea eta ostirala, urritik otsailera, 18:30-21:00), argazkia-sakonketa (asteartea eta ostirala, martxotik ekainera, 18:30-21:00), egur taila (asteartea eta osteguna, 17:00-19:00 eta 19:00-21:00), ehoziariak eta bainika (asteartea, 17:30-19:30), errestaurazioa (astelehena eta asteartea, 19:00-21:00), sabel dantza (ostirala, 19:00-21:00), masaia (osteguna, 18:30-20:30), pintura (asteartea eta osteguna, 15:30-17:30), eskulanak (asteazkena, 17:30-19:30), eta bitxiak egitea (astelehena, 18:30-20:30).

## JOKIN ZUGASTI ▶ UZTURPE IKASTOLAKO ZUZENDARIA



I. TERRADILLOS

## «Kalitatearen eta berrikuntza pedagogikoen bidea jarraituko dut»

DBHko koordinatzaile lanetan aritu da, eta datozen bost urteetan zuzendari izateko ardura du tolosarrak

## IÑIGO TERRADILLOS

Azken 5 urteetan Nekane Tolosaren zuzendaritzapean egon da Ibarroko Uzturpe ikastola. Aurtengo ikasturtean, ordea, Jokin Zugastik izango du horren ardura. Donostian bizi den 32 urteko tolosarra da. Donostian ikasi zuen Euskal Filologia, eta azken 8 urteetan Uzturpeko irakasle izan da. Gogotsu eta ilusioz ekin dio erronka berriari.

**Zein dira zuzendari bezala dituzun helburu nagusiak?**

Nekaneren bidea jarraitzeko asmoa dut. Azken urteetan kalitatearen, berrikuntza peda-

gogikoen eta formazioaren bidea jorratu du, eta nik ere berdin jarraitzeko asmoa dut. Esaterako, iaz kalitatearen Q-a lortu genuen, eta hori mantentzeko lan handia egin beharra dago. Formazioaren alorrean ere hasiera-hasieratik ekin diogu lanari; bizikidetzeta eta psikomotrizitate ikastaroak antolatu ditugu irasleentzat ikasturte hasierako egunetan, eta azaroan haurrentzako masaje ikastaroa eskaintzeko asmoa ere badugu.

**Zein izan da Uzturpen orain arte izan duzun egitekoa?**

DBHn euskara, gaztelania eta antzerkia eman ditut orain arte.

Koordinatzailea ere izan naiz azken urteetan, eta horregatik zuzendaritza taldean aritu naiz.

**Eta zuzendari izateko pausoa eman duzu aurten.**

Pasa den urtean Nekane Tolosak proposatu zidan bera uztera zihon kargurako. Zuzendaritza taldekoa nintzen eta egin beharreko lana ezagutzen nuen, ni aukeratu ninduen. Gainerakoak ere iritzi berekoak ziren, eta ondorengoa proposamena gurasoen batzarrean aurkeztea zen; eta baiezkota eman zioten. Beraz, gustura hartu nuen eskaintza. Hori bai, lan berrirako prestatzen jar-

dun dut azken urtean, ikasi beharreko asko baitzegoen.

**Izan ere, ardura handiagoa duzu orain.**

Noski. Lehenengo urtea izango dela gogorrena iruditzen zait, dena ezagutu arte; eta, bereziki, lehenengo hiru hilabeteak. Gainera, kurtso hasiera da, eta dena zerotik hastea esan nahi du horrek. Erantzukizun gehiago dut, eta uneoro gauza gehiago ditut buruan orain. Ikastola, haur eskola eta ludoteka kontuan hartuta 300 ikasle inguru ditugu, eta hori guztia kudeatu beharra dago. Eta ez da ahaztu behar Ibarroko enpresa handienetakoa garela, 45 langileekin. Bestalde, zuzendari izateko ardura hartu dut, baina gure kasuan txandakatu egiten dugu; beraz, nirea 5 urteko epea izango da.

**Zer da gehien faltan botako duzuna?**

Orain astean 2 orduz baino ez ditut klaseak ematen, antzerkiarenak, hain zuzen. Eta horixe da pena gehiena ematen didana, ikasleekin ezin jarraitu ahal izatea. Oso gustura egiten nuen lan hori, izan ere, nire kasuan 14-15-16 urteko nerabeekin egiten nuen, eta oso adin berezia da. Orain, berriz, bulegoan sartuta egon beharko dut denbora gehiena; hori uste dut dela alderik txarrena.

**Jendeak egin dizun harrera aipatzeko izan da.**

Batetik asko eskertzen dut ni proposatu izana, niretzako erronka handia izateaz gain, ohore bat baita. Eskaini badiate egin dezakedalako izango da, eta horrek asko poztzen nau; beraz, eskaintzea bakarrik zorte handia izan da niretzat. Ingaruko ikastolakoen babesa ere jaso dut, eta hori ere asko eskertzen da.

**Zein esango zenuke dela Uzturpe ikastolaren erronka nagusia?**

*Ibarra hazi eta hezi* da gure leloa. Ildo horretatik gure ikastolan hezitzeak berebiziko garrantzia du guretzat, uste baino gehiago laguntzen diolako gartetxoari herrian bizitzeko orduan. Hori baita gure helburua, Ibarra bizitza egitea.

- ▶ hilberriak
- ▶ urteurrenak
- ▶ eskertzak

Gipuzkoan  
50.000  
etxetara

**ESKELAK**  
19:00ak arte hartzen dira  
Telf.: 943 65 56 95  
tolosaldean@tolosaldeko hitza.info

HITZA guztietan prezio beragatik

ARESO ▶ UDALA

# Larraunekin elkartuta kirola eginez

## Aresoko Udalak hitzarmena sinatuko du Larraun Kirol Mankomunitatearekin

JAIONE ASTIBIA

Aresoko Udalak Larraungo Kirol Mankomunitatean sartuko dela jakinarazi du: erabakiaren azken berrespenaren faltan, «izatez, badago jada», argitu zioten HITZARI atzokoan. Horrela, bada, «aurtengo ikasturtean sartuta gaude eta las-ter plazaratuko ditugu zerbitzu berri honen eskaintzak», azaldu zuten bertan.

Larraungo Kirol Mankomunitateko kide diren udalei, Larraun, Lekunberri, Araitz eta Beteluri, orain Areso ere erantsiko zaie. Esan dutenez, «aspaldi» ari ziren hizketan gai honen inguruan: «Kirolaren alde zerbait egin nahi genuen, herriko jendeak kirola egiteko aukerak eskura jarri nahi genituen, eta probatzeko hasi gara. Jendeak gustura hartzen duen ikusi behar dugun», azaldu zuten. Orain arte, kirolaren arloa landu izan duen zerbitzurik ez da izan administrazioaren aldetik, eta hutsune hori betetzera heldu da hartutako erabaki hau.

Argitu zuten, Mankomunitateko zerbitzuez baliatuz, «kirol teknikariaren laguntzarekin», kirol desberdinak egiteko ikastaroak antolatuko dituzte: «Ikastaroak bertan egingen dira. Jarduerak herrian bertan

egitea nahi dugu, herritarrek ez dezatela kanpora joan beharrik izan nahi duten kirol hori egitera, eta, ahal dela, horixe izanen da lehenetsiko duguna», nabarmendu zuten. Bestalde, «herri ttikia garenez, akaso, taldeak osatzea kostako zaigu, baina gure helburua aktibitateak herrian bertan egitea da», erantsi zuten.

Zerbitzu berri honetan Aresoko Udalak «orain arte baino gehiago» inbertituko du. Azaldu dutenez, kirol aurrekontua igo egingen zaie, «baina herrian zerbitzu gehiago emanen dugu, eta hori ona da», baieztatu zuten. Zehaztu zuten, Mankomunitateko gastuen %50 Nafarroako Gobernuak diruz laguntzen du, eta beste erdia kide diren udalen ekarpenekin asetzen da. Ondorioz, herritarrek eskaintzen diren zerbitzuengatik askoz ere gutxiago ordaindu beharko dute: «Edozein ikastaro egiten dela ere, laguntza hauek kontutan hartuta, erabiltzaileek askoz merkeago izanen dute kirola egitea», ziurtatu zuten.

Ikastaroen egutegia prestatzen ari direla eman zion jakitera Aresoko Udalak HITZARI: horretan ari dira Larraungo Kirol Mankomunitateko teknikaria eta bertako Guraso Elkartearen.

KULTURA ▶

## Aurtengo Nafarroako Euskal Kantu Txapelketa aurkeztu dute jada

### Parte hartzeko kantuzaleek azaroaren 1a arte eman dezakete izena

J. ASTIBIA

Atzo aurkeztu zuen Euskal Kantuzale Elkarteak, prentsaren aurrean egindako agerraldian, aurtengo Nafarroako Euskal Kantu Txapelketako egutegia: lehen kanporaketa azaroaren 6an egingen dute, Irurtzungo Kultur Etxean; bigarrena, handik astebetera, Agoitzekoan; eta finala, berri, jada ohikoa den moduan, Doneztebeko Bordatxon egingen dute, azaroaren 19an.

Besteak beste, «kantagintza

zabaldu, kantatzeko zaletasuna piztu, kantari berriak plaza-ratu eta, batez ere, kantuarekin gozatzea» heburu izanik, «15 urtetik gorako edozeinek» parte hartu dezake lehiaketa honetan «bakalari gisa, bina-ka, nahiz taldean» eginez, «kantu propioekin, zein kantu zaharrekin, baina herritar era-za kantatuak badira», zehaztu zuten, «beti ere sormenez-koei arreta berezia» eskainiko diete.

Aurtengoan, lehiaketa honetan aurrenekoz parte hartu-

ko duten kantariak «berrien maila» osatuko dute, «beren meritua gogorarazteko asmoz». Bestalde, «berezi» bulkatuko omen dute taldeen parte-hartzea, «euskal kantua bizitzeko eta ulertzeko dagoen modurik ederrenetako» delakoan.

Izena azaroaren 1a baino lehen eman daiteke, elkartera deituz (948 14 18 12) edo gure eskualdean, Karrape Irratian. Zehaztu zuten, parte-hartzaileko gehienez bi kanta aurkez daitezke.

LEITZA ▶ KULTURA



## Ezarian, hedatuz doa Nabarralderen ekimena

J. Astibia ▶ Ostiral iluntzean Leitzan egin zuen bilera Nabarralde, besteak beste, orain berriro argitaratu den *Soberania o subordinación* liburuaurren aurkezpena egiteko baliatuz. Berak baieztatu zuenez, «burujabetza ezin

daiteke partekatua izan, osoa behar du izan, bestela ez da burujabetza». Eta, hori lortzeko, «Nafarroak, euskaldunon Estatu burujabea izanik, bere estatu izaera hori berreskuratu behar» duela iritzi zion. JAIONE ASTIBIA

hitza

# lagunen txokoa

▶ HITZAREN HARPIDEDUN  
TXARTELAREKIN %5\*-eko  
BEHERAPENA izango duzu  
zure EROSKETETAN

\*Promozio hau ez da beste beherapenei gehituko eta eskura ordaindutako erosketetan bakarrik aplikatuko da

▶ Txartela HITZAREN harpidedun laguntzaileek eskuratuko dute

## 'Lagun ezazu HITZA laguntzen'

DENDA HAUEK HITZAREN LAGUNTZAILEAK DIRA

**Avalon**  
o s a g a i a k  
korreo, 11 • Tolosa • Tel.: 943 67 51 02

**honetekin**  
TOLOSA  
Tel.: 943 65 24 30

**kanikak**  
San Frantzisko, 21 • Tolosa  
Tel.: 943 65 27 46

Gudari kalea, 5 • TOLOSA  
Tel.: 943 65 04 62

**ILUMINAZIOA**

**SHANTI  
KIROLAK**  
Rondilla, 11  
TOLOSA  
Tel.: 943 67 40 74

**MUGAR**  
Nafarroa etorb. 16 • TOLOSA  
Tel.: 943 65 56 85

**LIZARRIBAR**  
OINETAKOAK  
Arostegieta kalean  
TOLOSA

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZA laguntzen duten harpidedunen artean zozketak astero





AGENDA ▶

DEIALDIAK

**Ibarra.** Alurr dantza taldearen hamar urteetako ibilbidearen proiektzioa. 19:30etik 21:00etara, Kultur Etxean. Kultur Astean.  
**Leaburu.** Euskal dantzak eta gimnastika ikastaroak eskainiko dituzte urrian hasita. Izen-ematea, 943 67 59 31 zenbakian.  
**Tolosaldea.** Autobusa antolatu dute hilaren 23an Arantzazura joateko. Asteasutik abiatuko da 09:00etan, eta Irura-Villabona-Irura-Anoeta-Tolosa ibilbidea osatuko du Arantzazura joan aurretik. Itzuleran, berriz, 19:00ak aldera izango da. Joan nahi duenak lehenbailehen eman behar du izena 943 65 27 00an (Arantxa).  
**Villabona.** Oinkari dantzari taldeak bi ikastaro antolatu ditu: euskal dantzak 3 urtetik gorako haur eta gazteboentzat eta fandango eta arin-arina adin guztietakoentzat. Izen-ematea, Txermin ikastolako ganbaran, 660 13 93 80an edo harremanak@oinkari.net helbidean.

ERAKUSKETA

**Tolosa.** *Ipuinartean I* egitasmoaren erakusketa. Azaroaren 5a arte ikusgai, Aranburu Jauregian.

ZINE-KLUBA

**Alegia.** *Negocios ocultos.* Stephen Frears zuzendariaren lana. 21:30ean, Gaztetxean.

GUARDIAKO FARMAZIAK

**Gaur**  
Ibarra. Iturrioz, I. Euskal Herria, 3. 943 67 09 15.  
Areso. Goizueta, F. Loidi etxea. 112.

IRRATIA

**Txolarre irratiak (107.5 eta 101.2 FM)**  
11:00-14:00. *Tolosaldeko ahotsa:* 11:00etan eguraldia Joxe Landarekin; HITZAren errepasoa, oharrak, agenda... 12:30ean, *Zortziako Aldrebesa:* Bertsolari Txapelketa Nagusia; 13:00etan, *Ezkutuko koloreak* irrati nobela; 13:15ean, lehiaketa eta disko eskainiak.  
19:00-21:00. *Tolosaldeko ahotsa.*  
22:00-23:00. *Elektro gaua.*

▶ HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanetan eta iritzien erantzukizunik.

# Mendirik mendi, euskara

**TOLOSA ▶** Euskaraz Bizi proiektuaren baitan, mendiko hamabosgarren buzoia jarri dute Laskorain Ikastolakoek Lezizan, Euskal Herriko erdigune geografikoan



Lau ikastoletakoek bat egiten dute beti hitzordu berezi honetan, euskararen alde egiteko eta lagun artean egun polita igarotzeko. HITZA

ERRERAKAZIOA

**E**uskaraz Bizi proiektua gure ikasleen euskararen erabilpena bultzatzeko asmoz sortu genuen. Hasiera hartan inork gutxi sinisten zuen *Argitxo*-ren laguntzaz gure ikasleek euskara gaur egun hitz egiten duten neurrian hitz egingo zutenik, baina oso harro eta pozik egoteko arrazoia dugu». Halaxe diote Tolosako Laskorain Ikastolakoek. Orain gutxi proiektuaren eta ekimenaren ikur *Argitxo*-ren omenez beste buzoi bat jarri dute tontor batean, eta horren berri eman diote HITZARI.



Lezizan jarritako buzoia. HITZA

Hasierako garai haietatik hona, «beste hainbat eskolek eta ikastolek bat egiten dute proiektuarekin. Eta, euskararen onerako izango denez, oso gustura gaude. Hasiera hartan abiatu ginen lau ikastoletako kideok, Gasteizko Euskararen Aldeko Lagunek, Atarrabiako Paz Ziganda Ikastolak, Lizarrako Lizarra Ikastolak eta guk geuk, Laskorain Ikastolak, urtero hitzordu garrantzitsu bat izaten dugu: Euskal Herriko mendi batean Euskaraz Biziren alde *Argitxo*-ren omenez buzoi bat jartzeko dugu. Aitzakia honekin, egun-pasa antolatzen dugu». Azaldu dutenez, eki-

men honen antolaketaz txandaka arduratzen dira; «hala, duela bi igandean Atarrabiako lagun eskutik hamabosgarren buzoia jarri genuen».

Hamabosgarrena izanik, leku berezi batean kokatzea pentsatu zuten eta, honela, Euskal Herriko erdigune geografikora jo zuten: Leziza mendiarren magalera (Nafarroa), hain zuzen ere.

«Euskararen aldeko ekimen berri bat egiteaz gain, egun polita igaro genuen bertara bildutako 200 lagunok. Hurrengo urtean guk geuk hartuko dugu antolaketaren lekukoa», adierazi dute Laskoraingoek.

AGURRAK ▶

# HITZA, zorion agurren tartea

Urtebetetzeak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberriak... zoriontzeko, etorri:

HITZAren egoitzetara:

Araba etorbidea, 5 behea - TOLOSA • Udaletxeko bulegoa - LEITZA

Mesedez, argazkia bi egun lehenago ekarri. Mila esker!